

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK

2013ko urriaren 4an aurkeztuko du

Antoni Tàpies

**Objektutik eskulturara
(1964–2009)**



Babeslea



GUGGENHEIM BILBAO

Iberdrolarentzat biziki pozgarria da Guggenheim Bilbao Museoak Antoni Tàpiesen eskultore lanari eskainitako erakusketaren babesle izatea. Askotariko materialez eta teknikez egindako obrez osatutako erakusketa honetan, Tàpiesek bost hamarkadatan zehar jarraitutako ildo tematiko eta kontzeptuala agerian uzten da, eta, halaber, artistak bere garaiko artean izandako eragina beste ikuspegi eta irakurketa batzuetatik ulertzea ahalbidetzen du.

Hormak, atek, aulkiak, armairuak, platerak, liburuak, saskiak edo bainuontziak Museoko aretoetan barrena hedatzen dira, ikusleari inguratzen duen mundura hurbiltzeko beste modu bat eskainiz. Apaindura handirik gabeko eta oinarritzkoa gordetzen duten objektuen bidez – Tàpiesen objektuen bereizgarri–, ikuspegi mistikoei dagokien moduan, objektu horiek errealtatetik berreskuratu eta dimentsio berri bat ematea lortzen du.

Eskulturen bidez, gauzen erroan sakontzea du xede artistak; arrazoia eta intuizioa elkar lotzea, eta bere mundu sinbolikoan eta misterioz betetakoa, baina aldi berean ludikoan, ikusleak murgilaraztea. Egiazkoa, oinazea, denboraren iragaitea, gizakiaren izaera eta espiritualtasuna dira bere obretan agerian geratzen diren gaietako batzuk. Obra horiek, era berean, eskulturaren inguruko hausnarketak proposatzen dituzte; hala nola, material desberdinek edo gune publikoari heltzeko moduak eragindako arazoak.

Iberdrolak Guggenheim Bilbao Museoaren erakusketa honetan parte hartzea erabaki du erakunde honekin konpromiso sendoa dugulako, eta, halaber, enpresa gisa dugun erantzukizun sozialaren barruan, artea eta kultura laguntzeko erabaki irmoa hartu dugulako. Artea hedatzea ezinbesteko zeregina dela uste dugu, eta horretan jarri ditugu gure baliabide zein ahaleginak, ahalik eta jende gehienak iraganeko eta oraineko obrez gozatu eta horiek balioesteko aukera izan dezan, hain zuzen ere, artelan horiek gure buruak eta inguratzen gaituen gizartea hobe ezagutzeko bidea ematen digutelako.

Espero dut Tàpiesen objektu eta eskulturen sorkuntza osoa jasotzen duen erakusketa zoragarri honekin gozatzea, eta bertaratzeko deia egiten diet artea maite duten guztiei, mundu mailako artista baten sorkuntzaz gozatzeko aukera paregabea baita.

Ignacio S. Galán
Iberdrolako presidentea

Antoni Tàpies. Objektutik eskulturara (1964-2009)

- Komisarioa: Álvaro Rodríguez Fominaya
- Datak: 2013ko urriak 4–2014ko urtarrilak 19
- Babeslea: Iberdrola

Guggenheim Bilbao Museoa [*Antoni Tàpies. Objektutik eskulturara \(1964-2009\)*](#) erakusketa aurkezten du, hain zuzen, artistaren heriotzaren lehen urteurrena betetzen den urtean. Erakusketak sakontasun handiz eta osotasunez aztertzen du XX. mendearen bigarren erdiko funtsezko artistaren alderdi esanguratsuenetako bat: ia bost hamarkadatan zehar sortutako eskulturak.

Erakusketak, Iberdrola babesle duela, ehun obra inguru jarriko ditu ikusgai; hirurogeiko hamarkada erdiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadako lehen objektu eta *assemblage*-etatik hasi, eta txamotadun lur eta brontze berrienetaraino iritsiz, 2009. urtean artistak sinatutako azken eskultura barne hartuta.

Eskulturen zein objektuen gaineko jarduna da Antoni Tàpiesek artista gisa izandako bilakaeraren ezaugarri nagusietakoa, eta haren ibilbide osoan zehar nabarmentzen da, corpus bakarra eta autonomia osatuz. Álvaro Rodríguez Fominaya erakusketaren komisarioak azpimarratu bezala, *Antoni Tàpies. Objektutik eskulturara (1964-2009)* erakusketak “bere ibilbide osoan zehar Tàpiesek arazo eskultorikoaren inguruan izandako kezka etengabea” agerian uzten du, “eta, lehen aldiz, bere buruaren aurrean kokatuko du eskultura”.

Erakusketa museoaren bigarren solairuan kokatzen da, kronologiaren eta gaien arabera antolatuta, eta tamaina handiko piezak zein dimentsio txikiagokoak konbinatzen ditu. Halaber, piezen denbora-garapena eta artistak baliatutako gaiak, materialak eta teknikak tartekatzen ditu erakusketak, era horretara, ikuslea Antoni Tàpiesen eskultura-unibertsora hurbilarazten du: hormaren ideiatik hasi, eta eguneroko objektuak, hala nola, aulkiak, oheak, gazezurak edo liburuak, modu errepikakorrean irudikatzeraino.

Antoni Tàpies. Objektutik eskulturara (1964-2009) erakusketa Guggenheim Museoek nazioartean sona handienetakoa izan duen artista espainiarrari eskainitako laugarren erakusketa handia da: 1995ean, New Yorkeko Sohoko Guggenheim Museoan, Carmen Giménez komisarioa zela; 1962an, Lawrence Alloway komisarioa zuen atzera begirakoa New Yorkeko Guggenheim Museoan; eta, 2001ean, *Chillida-Tàpies: materia eta pentsamendu bisuala* bilduma iraunkorraren aurkezpena Guggenheim Bilbao Museoan, Petra Joos komisarioa zuena, eta, geroago, 2002an, Berlingo Deutsche Guggenheimen erakutsitakoa.

Tàpiesek lehen objektu autonomoak, argi eta garbi hiru dimentsiokoak zirenak, hirurogeiko hamarkada erdialdean egin zituen. Haatik, laurogeiko hamarkadara arte “eskultura” hitza ez zen formalki bere hiztegian txertatu.

Hirurogeiko hamarkadaz geroztik

Erakusketa Museoaren areto klasikoetan abiatzen da, Tàpiesek hirurogeiko hamarkada erdian eta hirurogeita hamarreko hamarkadan egindako obrekin. Epe horretan jardun politiko bizia izan zuen artistak, eta eguneroko objektuak txertatu zituen bere ikerketan. Objektu horiek Arte Informalari lotu ez ezik, paraleloki garatzen ari ziren beste ildo kontzeptual batzuekin bat zetozen ere —Povera Artea, esaterako—, eta, aldi berean, Dadá eta Surrealismoan jatorria zuten.

Alderdi hori erakusketaren zenbait piezatan nabarmentzen da, hala nola, *Cadira i roba* (Aulkia eta arropak, 1970), *Pila de plats* (Plater pila, 1970) edo *Armari* (Armairua, 1973) obretan. Obra horiek Tàpiesen ibilbideko *assemblage* objektuen hizkuntzaren hastapena dira, eta altzari, paper, arropa, zerrauts edo zurarekin sortutakoak dira. Lan horietan erabilitako baliabide sinboliko anitzek ikerketa-ildo ugari zabaldu zizkioten artistari, *Farcell* (Fardela, 1970) edo *Cartó corbat i corda* (Kartoi kurbatua eta soka, 1970) obrek adierazten duten moduan.

Tàpiesen aburuz, collagea bere eskulturen aurrekari zuzena da. *Rotllo de tela metàlica amb drap vermell* (Metalezko oihal biribilkia trapu gorriarekin, 1970) eta *Maqueta per a “Núvol i cadira”* (Hodei eta aulkirako” maketa, 1988) obretan, sare metalikoa eta alanbrea erabiltzen ditu. Material malgu horiek espazioa definitzen duen ardatz gisa dihardute, eta natura organikoko elementuekin kontrajartzen dira. Ondorengo hamarkadetan ere heldu zion jardun horri.

Lehen txamotadun lurrak

Laurogeiko hamarkada hasieran, artistaren sorkuntza-prozesuak aldaketa esanguratsua izan zuen, izan ere, *assemblage*-ak alboratu zituen aldi batez eta zeramikaren arloan murgildu zen; hain zuzen ere, 1981. urtekoak dira baliabide horrekin sortutako lehen lanak.

Eduardo Chillida eskultoreak, Aimé Maeght arte-merkatari eta galeria jabeak eta Joan Gardy Artigas zeramikariak funtsezko eragina izan zuten aurkikuntza honetan. Erakusketak material honekin egindako lehen obretako batzuk jasotzen ditu, *Cub* (Kuboa, 1983) edo *Díptic* (Diptikoa, 1983) esaterako, Gallifako (Katalunia) Artigas lantegian egindakoak. Geroago, Lelong galeriak Grassen duen lantegian lan egin zuen artistak, Hans Spinner zeramikariarekin elkarlanean.

Zeramikaren aukera anitzen artean, txamotadun lurra hautatu zuen Tàpiesek, hots, buztinaren eta zeramika egosiaren eta ehotuaren zatien arteko konbinazioa. Nahasketa horrek tamaina handiko eskulturak eta

aldaketa klimatologikoen aurrean irauten zutenak egitea ahalbidetzen zion, esaterako, *Sabatilla* (Zapatila, 1986). Luzeran bi metrotik gora ditu, eta aretoaren erdialdea hartzen du.

Artistak, era berean, beste material eta teknika zeramikoz batzuk esperimentatu zituen garai hartan, adibidez, esmaltea, gresa eta porzelana. *Llit* (Ohea, 1988) edo *Divan* (Dibana, 1987) obretan, txamotadun lurraren gainean esmaltea nola aplikatzen den ikus dezakegu; lan hori pintzelen, erratzen edo belakien bidez egin ohi zuen. Artistak, gehienetan, inskripzio kaligrafikoak edo zeinuen inskripzioak egiten zituen objektu horien gainean, esmerilagailuak, edo baita giltza baten hortzak ere, baliatuta. Alvaro Rodríguez Fominayak katalogoko testuetan azaldu bezala, zeinu horiek “*ez dira interpretaziorako elementuak, ez dute ‘argitzeko’ funtziorik betetzen; pieza horiei esanahi pribatua eransten dieten ‘lausodurak’ dira*”.

Honako hau erantzun zion esplizituki Tàpiesek Jean Frémoni haren *La poétique de la matière* liburuan egindako “*Zer da eskultura?*” galderari: “*Esaterako, zergatik ez aurre haginaren formarekin modelatutako hogeita hamar kilo buztin, korrika eta presaka, oraindik ere tantaka ari den esmalte zuriz estalita?*”

Garai horretan, halaber, artistaren inbentario sinbolikoa gero eta ageriago geratu zen bere obretan; *T tombada* (T etzana, 1986) eta *Cub-creu* (Gurutze-kuboa, 1988) obrek, esaterako, bete-betean garamatzate Tàpiesen irudizko mundura.

Lurretik brontzera

Museoko lerromakur formako areto handietako batean, Tàpiesen hiru dimentsioko obraren baitako heldutasunaren adibide esanguratsuak ikus daitezke. Txamotadun lurraren teknika menderatzen zuela nabarmentzen da, eta brontzearekin egindako lehen lanak ere ikus daitezke (aretoan dauden *La butaca* (Besaulkia, 1987) eta *Matalàs* (Koltxoia, 1987) horren adibide bi dira). 1987an hasi zen brontzearekin lanean, Vallsen, Foneria Vilà galdategi katalanean. Artistak bi materialak landu zituen zenbait obretan, eta baita hainbat eguneroko objektu eta motibo errepikatu ere, liburuak eta gazezurak, kasu.

Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera altzarietatik sortutako hiru dimentsioko *assemblage*-en artean, aipagarriak dira aulkiak, artistak sakon garatutako gaietako bat. Laurogeiko hamarkadan gai horri heldu zion Tàpiesek berriz ere.

Erakusketak zeramikaz egindako hainbat aulki jasotzen ditu. Grassen, Frantzian, sortutakoak dira, artistak bertan lan egin baitzuen Hans Spinner zeramikariarekin. Aulki horiek artistaren unibertso sinbolikoaren zati bat laburbiltzen dute, esaterako, *Cadira coberta* (Aulki estalia, 1988), belarri bat eta “T” bat ikus daitezke bertan; *Cadira amb barra* (Aulkia barrarekin, 1988), aulkia “T” batean bilakatzen duen elementu horizontala duena; eta *Cadira* (Aulkia, 1987), gurutze baten inskripzioa duena. Txamotadun lurraren gainean esmaltea erabiltzen du obra horietan guztietan. Teknika horrek kalteak eragin ditzake ustekabeen, beroak koloreak eta egitura aldatzea ekar dezakeelako, horiek artistaren intereseko elementuak izanik

Obra horiekin batera, Tàpiesek 1988an egindako bainuontzia aurkezten da. Bainuontzia, oro har, eremu pribatuari eta intimoari lotzen zaion objektua izanik, esangura berria hartzen du museoko gune erdipublikoan erakusgai jarrita. Bestetik, saskia —kasu honetan zeramikazkoa— brontzez egindako beste zenbait objektutan ikusi ahal izango da laurogeita hamarreko hamarkadan.

Paretak, hormak, atepak

Hormaren ideia, Antoni Tàpiesen eremu ikonografikoaren oinarritzko kontzeptua, erakusketan ere ageri da, alegia, "Paretak, hormak eta atepak" izenarekin hautatutako obra bilduman. Horien artean, hormigoi erregogorrean egindako *Triptic* (Triptikoa, 1991) eta *Composició* (Konposizioa, 1991) obrek adierazten dute artistak abiatutako abstrakzio eraikitzailearen ildoak.

"Hormaren irudiaren botere oroitarazlearen kontzientzia nire baitan sartzen hasi zeneko historia egin beharko banu, oso urrunera jo beharko nuke. Gerrak bizitu nituen garaian hormen artean giltzapetutako nerabegarotik eta gaztarotik datozkidan oroitzapenak dira". Horrela azaldu zituen artistak bere obretako hormen anibalentzia eta esanahi anitzak 1969. urtean kaleratutako "Comunicación sobre el muro" artikuluan: *«Makina bat iradokizun sor daitezke horma baten iruditik eta horma horrek eskaintzen dituen aukera guztietatik! Banaketa, itxialdian egotea, doluen horma, espetxearen horma, denboraren iragaitearen lekukotasuna; (...) Eta baita nik hainbeste estimatzen ditudan filosofia eta jakituriei harrotasunez lotzen ninduten beste hainbat eta hainbat gauza ere!».*

Gai honi lotuta, halaber, zeramikaz zein brontzez egindako atepak ikus ditzakegu, hala nola, *Porta II* (Atea II) 1987koa, *Porta* (Atea) urte berekoa, brontzez egindakoa; edo *Horma* (Mur, 1991) literalagoa.

Ate eta horma horiek sinbologiaz beteta goratzen dira ikuslearen begiradapean.

1993ko uda

1993an, *Rinzen* —"bat-bateko esnatzea" japonieraz— instalazioa aurkeztu zuen Antoni Tàpiesek Veneziako 45. Bienalean, Espainiaren Pabilioian, Cristina Iglesias euskal artistarekin batera parte hartuz. Balkanetako gerrarekiko protesta eta haren ondorioez hausnarketa egiten duen obra honekin Urrezko Lehoia irabazi zuen.

Pieza hori amaitu ondoren, energia berrituarekin abiatu zuen 1993ko uda artistak; horrela, zenbait objektu sortu zituen Montsenyko estudioan, berriz ere *assemblage* hutsera itzulera adierazten dutenak, esaterako, *Capçal i metall* (Oheburua eta metala), *Paquets metàl·lics* (Pakete metalikoak) edo *L' hora del te* (Te ordua), guztiak 1993. urtean egindakoak. Bultzada berri hau ere agerian geratuko da 1994an *Antoni Tàpies: A Summer's Work* izenburupean Londresen egindako erakusketan. Bertan, Bienalean parte hartu ostean bere eskulturen norabide berriaren harira sortutako obrak egon ziren ikusgai.

Neurri batean, pieza berri horiek artistaren iragana biltzen dute, izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadako lehen objektuekin lotuta ez ezik, aldi berean, bere praxi artistikoa etorkizunera bideratzen dute, eskulturetan egitura eta elementu berriak erabiltzearen bidez.

1995–2009

Erakusketa bukatzeko, 1995etik 2009ra bitarteko zenbait eskultura daude ikusgai. Eskultura sorta horrek artistaren amaierako produkzioa jasotzen du, hil baino hiru urte lehenagora arte. Garai hartan, Tàpiesek hamarkada luzeetan zehar pilatutako baliabide teknikoak eta material anitzak irmotasun handiz azaldu zituen.

Aldi horretan, artista ez zen aurreko urteetan erabilitako teknikak berregitera mugatu; materialak eta prozesuak arintasun handiz tartekatu zituen, aldi berean, *assemblage*-ak, brontzeak eta zeramikak sortuz, eta bere hizkuntzari elementu berriak erantsiz. Brontzearen kasuan, patina eta formatu berriak landu zituen, *Caixa i cadira* (*Kaxa eta aulkia*, 1999) obran, esaterako; zeramikan, minerala eta organikoa eta gresa lurrarekin kontrajarri zituen —*Creu invertida* (Iraulitako gurutzea, 2002)—; eta, objektuei dagokienez, ikuspegi eta bolumen berriak sortu zituen, *Composició amb Cistella* (Saskiarekin egindako konposizioa, 1996) obran esaterako.

Aitzitik, bere irudizko mundua osatzen zuten ezaugarri iraunkorrek tinko jarraitu zuten: zeinuak, grafiak, gurutzeak, matematikak, landa-eremua, egunerokoa eta familia-eremua. Bere azken testuetako batean, Shih-t'aoren aipu hau helarazi zigun Tàpiesek: “Nire eskuaz hitz egiten dut nik; zuk begiekin entzuten duzu”.

Artistak 2009. urtean sortutako azken eskulturak, *Trill* (Lera) izenekoak, ixten du erakusketa. Obra honek Antoni Tàpies eskultorea aldarrikatzen du; ez da jenio katalan handiaren alderdi ezagunenetakoa, baina, bai, ordea, esanguratsuenetakoa.

Gune didaktikoa

Erakusketaren gune didaktikoak artistaren bizitzaren une esanguratsuenen berri ematen dio bisitariari, eta artistaren eskultura-produkzioari lotutakoak aipatzen ditu bereziki. Bestetik, arlo publikora lotutako Tàpiesen alderdi sortzailea ere nabarmentzen da, besteak beste, *Rinzen*, *Núvol i cadira* edo *Mitjó* proiektuak azpimarratuz. Leku publikoetan aurkezteko sortu zituen arren, erakusketako obrei lotzen zaizkie, teknika bera erabiltzeagatik, erabilitako materialarengatik edo horiek eragindako ideiegitatik.

Katalogoa

Álvaro Rodríguez Fominayak, erakusketako komisarioak, Tony Godfreyk eta Anatxu Zabalbescoak sinatutako hiru entseguren bidez, artista katalanaren hiru dimentsioko produkzioa *Antoni Tàpies: objektutik*

eskulturara (1964-2009) erakusketaren katalogoan jasotzen da. Katalogoak, halaber, ehun erreprodukziotik gora jasotzen ditu, eta baita Mirosław Balkak, Cristina Iglesiasek, Marjetica Potrček eta Jessica Stockholderrek sortzaile katalanaren obrari buruz idatzitako testu laburrak ere. Katalogoak kronologia eta biografia jasotzen ditu, eta María José Balcellsek egindako glosarioa.

Azaleko irudia:

Pila de Plats (Plater pila), 1970

Assemblage-objektua

40 x 23 x 23 cm

John Cage Trust bilduma

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona / VEGAP, Bilbo, 2013

Argazkia: Joerg Lohse

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta komunikazio Arloa

Tel: +34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

<http://tapies.guggenheim-bilbao.es/eu/>

Guggenheim Bilbao Museoaren gaineko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa eremua).

Prentsa irudiak:
Antoni Tàpies. Objektutik eskulturara (1964-2009)
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

1. *Cadira i roba* (Aulkia eta arropak), 1970

Assemblage-objektua

94 x 76 x 63 cm

Fundació Antoni Tàpies bilduma, Bartzelona

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Irudien iturria: VEGAP-en irudi-bankua



2. *Pila de diaris* (Egunkari pila), 1970

Assemblage-objektua

29 x 45 x 43 cm

Michael Straus-en bilduma

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Argazkia: Jason Wallis



3. *Pila de Plats* (Plater pila), 1970

Assemblage-objektua

40 x 23 x 23 cm

John Cage Trust bilduma

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Argazkia: Joerg Lohse



4. *Farcell* (Fardela), 1970

Pintura assemblage-objektuaren gainean

75 x 55 x 45 cm

Bilduma pribatua, Bartzelona

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Irudien iturria: VEGAP-en irudi-bankua



5. *Armari* (Armairua), 1973

Tapiz-objektua

231 x 201 x 156 cm

Fundació Antoni Tàpies bilduma, Bartzelona

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Irudien iturria: VEGAP-en irudi-bankua



6. *La butaca* (Besaulkia), 1987

Pintura brontze gainean

88 x 90 x 87 cm

Fundació Antoni Tàpies bilduma, Bartzelona

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Irudien iturria: VEGAP-en irudi-bankua



7. *Llit* (Ohea), 1988

Esmaltea txamotadun lur gainean

27 x 175 x 86,5 cm

Maxine and Stuart Frankel Foundation for Art

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Argazkia: PD Rearick



8. *Banyera I* (Bainuontzia I), 1988

Esmaltea txamotadun lur gainean

78,5 x 143,5 x 63,5 cm

Bilduma pribatua

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Argazkia: Prudence Cumming Associates Ltd.



9. *Composició* (Konposizioa), 1991


Oxido-pintura hormigoi errogogorraren gainean

160 x 243 x 59 cm

Fundació Antoni Tàpies bilduma, Bartzelona

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Irudien iturria: VEGAP-en irudi-bankua



10. *Panera de roba* (Arropa-saskia), 1993

Pintura assemblage-objektuaren gainean

48,5 x 118,5 x 156 cm

Bilduma pribatua, Bartzelona

© Fundació Antoni Tàpies, Bartzelona /VEGAP, Bilbo, 2013

Irudien iturria: VEGAP-en irudi-bankua



Erretratuak

Antoni Tàpies bere lantegian, Bartzelona, 2002

Argazki kreditua © Teresa Tàpies Domènech



Antoni Tàpies bere lantegian, Bartzelona, 2002

Argazki kreditua © Teresa Tàpies Domènech

